

Testuliburuetan agertzen den Euskal Herriak irudi zatikatua eskaintzen du

► Hauxe da «Curriculumua eta ingurunea Euskal Herrian» lanaren ondorio nagusienetako bat
► Euskal Herria historiarik gabeko herria dela ondorioztatzen da testuliburuetan

Testuliburuetan agertzen den XX.mendeko Euskal Herriak gero eta irudi zatikatuagoa eta auzo-estatuekin gero eta korapilatuagoa eskaintzen die euskal ikasleei. Pedagogoa eta Bilboko Irakasle eskolako irakasle den Gurutze Ezkurdia ondorio horretara heldu da bere «Curriculumua eta ingurunea Euskal Herrian» liburuan.

Iñigo VARONA
BILBO

Testuliburuetan agertzen den XX.mendeko Euskal Herriak gero eta irudi zatikatu eta nahasiagoa eta auzo-estatuekin gero eta korapilatuagoa eskaintzen dio euskal ikasleari. Horixe da Gurutze Ezkurdiak idatzitako «Curriculumua eta ingurunea Euskal Herrian» liburuaren ondorio nagusia. Horretaz gain, identitatearen eraikuntzan espazioa eta denboraren kontzeptuek lurralde eta historia gaian duten garrantzia nabarmena dela adierazi zuen atzo aditu honek Bilbon egindako aurkezpenean. Era berean, testuliburuaren azterketatik Euskal Herria historiarik gabeko herria dela ondoriozta daitekeela erantsi zuen. «Badirudi historiarik ez dugula», esan zuen.

Ondorio hauetara iristeko, Bilboko Irakasle eskolako irakasle honek ikergaitzat XX.mendean Euskal Herrian erabili izan diren 5. mailako testuliburuaren edukia ikertu du. Lan honetan historiarekin eta



Begoña Bilbao, Karmele Perez Urraza eta Gurutze Ezkurdia atzo Bilbon egindako aurkezpenean.

Marisol RAMIREZ | ARGAZKI PRESS

lurraldearekin zerikusia duten aldagaiak zeintzuk diren eta nola erabiltzen diren azaltzen da, hala nola, pertsonaiak, monumentu historikoak, kronogramak, lurraldea eta mapak.

Antzeko ondorio batera iristen da Begoña Bilbaok, Gurutze Ezkurdiak eta Karmele Perez Urrazak idatzitako «Euskal curriculumua ala euskal dimentsioa curriculumean» liburua. Egile hauek adierazi zuten, edukiari ematen zaion testuingurua hizkuntzaka begiratzuz gero, frantsesez idatzitako liburuak izaera dikotomikoa agertzen dute, ia %50ean dute mar-

NAHASIA

➤ **Euskaraz eta gaztelaniaz idatzitako liburuetan testuinguru soziokulturala, juridikoa eta nahasia agertzen da.**

katuta estatuaren presentzia eta eduki zehaztugabea. Euskaraz eta gaztelaniaz idatzitako liburuetan, ordea, testuinguru soziokulturala, juridikoa eta nahasia askotan agertzen direla nabarmendu zuten atzo egindako aurkezpenean.

Alde horretatik, nabarmentzekoa da zehaztugabe gelditzen diren edukiak antzeko kopurua erakusten dutela hizkuntza bietan: %61,01era heltzen da euskarazkoetan eta %63,06ra gaztelaniazkoetan. Edozein modutan ere, euskaraz eta gaztelaniaz idatzitako liburuetan antzeko testuinguruak islatzen direla zehaztu zuten.

«Ehunekoetan datuak ezberdinak izan arren, antzekotasun horrek argi uzten du euskaraz ekoiztutakoak frantsesez idatzitako liburuetatik urrun daudela, eta gaztelaniaz idatzikoetatik hurbilago», baieztatu zuten.

Begoña BILBAO | Pedagogian doktorea eta Bilboko Irakasle eskolako irakaslea

«Euskal curriculumua ez daukagunez, euskal dimentsioa ikasten dute umeeek»

Begoña Bilbao, Gurutze Ezkurdia eta Karmele Perez Urrazarekin batera, «Euskal curriculumua ala euskal dimentsioa curriculumean?» liburuaren egilea da.

–Zer ikasten dute Euskal Herriko umeeek eskoletan?

Euskal curriculumua ez daukagunez, euskal dimentsioa ikasten dute umeeek. Nire ustez, hori baino askoz garrantzitsuagoa da erkidego moduan zer ikasten dugun, hau da, zer eta nor garen eta

zer ezaugarri ditugun. Hori da modu egokian irakasten ez dena eta eskolan beste tratamendu bat behar duena. Gu ez gara arazo politikoan sartzen, arazo kulturala ere badelako. Kontuan hartu beharra dago ikuspegi soziokulturala ez dela eskoletan lantzen. Gauza biak nahastu egiten dira. Gure ustez, ikuspegi soziokulturala egon behar da, hau da, gu euskaldunak gara eta ez daukagu inolako arazorik beste herri batzuekin bizitzeko.

–Testuliburuak egiten dituzten

argialetxeen artean ezberdintasunak daudela diozue.

Guk edukiak zelan lantzen diren aztertu dugu. Ezberdintasun handiak daude argialetxearen arabera. Testuliburu guztiek egiten dute interpretazio bat, bakoitzak berea. Irarurketa hori ezberdina da. Aldatzen dena eduki bakoitzari ematen zaion erreferentzia da, hau da, testuingurua.

–Beraz, testuliburuaren arabera, Euskal Herriko umeeek gauza ezberdinak ikasten dituzte? Bai. Liburu batzuetan Euskal



Marisol RAMIREZ | ARGAZKI PRESS

Herria existitzen den herria dela ikasiko dute umeeek eta beste liburu batzuetan Euskal Autonomi Erkidegoa izango da. •

I. V.

Hezkuntza premiak aztertuko ditu UEUk

GARA

DONOSTIA

Donostian aurkeztu zituen atzo Udako Euskal Unibertsitateak Euskal Material Didaktikoaren I. Topaketak «Hezkuntza premia bereziak» izenburupean. Topaketa hauen helburua bikoitza da: batetik, euskal material didaktikoaren egoera aztertzea, eta bestetik, alor honetako eragileen bilgune izatea. Topaketak martxoaren 4 eta Sean egingo dira UEUren Eibarko Ikastetxe Nagusian. Izena emateko epea otsailaren 27an amaitzen da.

UEUko zuzendari den Lore Erriondok nabarmendu zuenez, «topaketa hauek, UEUren egitasmoa Euskal komunitate unibertsitarioaren bilgunea egituratzearen alorrean kokatzen dugu, eta bertan aipatzen den bezala, xedea goi-mailako adituak arloka edo interesgunea biltzea da, izan ditzakegun premia, berritasun eta komunikazioa bideratzeko, bestela sakabanatuta egon daitekeen euskal jakintza-aren ekarpena trinkotu eta eragin asmoz. Izaera honetakoak ditugu antolatzen ditugun informatikari euskaldunen bilkura, euskarazko kazetaritzaren jardunaldia, historialariena, Inguma datu-basea, Software katalogoa eta argitalpenak».

Topaketen zergatia

Jarraian, Ane Olabarriak, UEUko Pedagogia sailburuak, Topaketa horien zergatia eta egitarauaren berri eman zuen: «Zenbait hezkuntza esparrutan, euskal material didaktikoan hutsune handiak sumatu ditugu, eta Udako Euskal Unibertsitateko Pedagogia Sailean hutsune horretaz jabetuta, material hori sortzeko edota dagoena egokitzeko beharra ikusi genuen. Izan ere, saikera onak egin dira alor honetan, baina ez dute hezkuntza komunitatera heltzeko bidea topatu; askotan ahalegin handiak bertan geratu dira, irtenbide gabe. Horretaz gain, hezkuntzaren alorra oso zabala da, eta beraz, edizio bakoitzean gai desberdin bat lantzea erabaki dugu».

Hori dela eta, Ane Olabarriaren esanetan, bi helburu nagusi izango dituzte topaketa horiek: alde batetik, ikastetxeetako profesional eta erakundeen arteko indarrak bildu nahi dira; eta bestetik, kalitatezko euskal material didaktikoa sortzeko zubiak eraiki nahi dira.